



Berrien buletina

AGOIZKO UDALA

www.aioiz.eu – www.facebook.com/ayuntamientoaoiz

n°24 – 2019ko martxoa
OTSAILA LABURPENA

Egoitza elektronikoa, martxan

Duela gutxi, Agoizko udalak sarbide berri bat txertatu zuen webgunean, egoitza elektronikoa, hain zuzen. Haren bidez, zenbait izapide egin ahalko dira, instantzia orokorrak aurkeztu edo errolda agiriak eskuratzea, besteak beste.

Zerbitzu berri honen bidez egin ahal diren izapide guztien zerrenda Egoitza Elektronikoa izeneko atalean ikus daiteke. Zerrenda hori osatzen duten izapide guztien artean, honako hauek daude: katastroko eta erroldako datuak kontsultatzea, jarduera baimenak eskatzea, ordainketen zatikapena eskatzea...

Udalak jakinarazi nahi du webgune segurua eta fidagarria dela, eta bertan herrikoek erraz egin ditzakete tramiteak, udaletxera hurbildu beharrik izan gabe.

Administrazioa eguneratzeak barneko lan handia eskatzen du. Prozedurak homogeneizatzeko lan handia egin behar da, baina Agoi-

tzek garai berri hauetara egokitzeko urrats garrantzitsu hori eman du.

Egoitza Elektronikora sartzeko bi modu daude: sedeelectronica.agoitz.eu helbide elektronikoa-ren bidez eta baita www.agoitz.eu helbidera sartuta ere (web-orriko goialdean botoi bat txertatu da).



Parlamentariak, herriko ikastetxean

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko kideak, EH Bilduk eskatuta, San Migel Ikastetxean egon zen. Zentroa 1977. enean altxatu zen, eta 1996. urtean institutua ondoan erantsi zitzaion. Instalazioak, hezkuntza eredua eta haren beharrak ezagutzea izan zen bisitaldiaren helburua. Ikastetxeko zuzendaritza taldeak

eta udal ordezkariak legegintza botereko ordezkariari harrera egin ondoren, Inma Beroiz zuzendariak azalpenak eman zituen. Kezkaturik agertu zen ikasle kopurua nabarmenki igo eta ikastetxean dagoen demandari irtenbidea emateko zailtasun handiak daudelako, eta baita azpiegiturak zaharkituta daudelako ere. Testuinguru horre-

tan, Bigarren Hezkuntzako institutua eraikitzeke beharra planteatu zen, Lehen eta Haur Hezkuntzako ikasleek har zezaten bigarren hezkuntzako ikasleek utziko luketen espazioa.

Bestalde, giza baliabideei dagokionez, zuzendaritza ekipoak ados agertu zen bigarren zuzendari bat edukitzearekin, hala nola zailtasunak dituzten ikasleentzako laguntza emateko jardunaldi osoko dedikazioa aitortzearekin.

Bilera bukatutik, bisitaldi gidatua egin zen ikastetxean barna, agertutako beharrak ikustarazteko.

Halaber, parlamentuko ordezkariak gerora begirako jarduketatzat hartu zuten Agoizko institutua egitea.



EmanZipa dirulaguntza berriak, gazteek etxebizitza alokatzeko, indarrean

Urtarrilaren 1etik aurrera eska daitezke Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubide Departamentuak alokairuentzako ezarritako la-

guntza berriak. Neurria etxebizitza edukitzeko eskubide subjektiboa aitortzearen ondorioa da.

Laguntzek bi modalitate dituzte: bat Eman Zipa deitutako programa da, emantzipazioa lortzeko beharrezkin lotuta dago, pertsona gazteei zuzenduta dago eta behin behineko izaera du (3 urte); bestea DaVid izeneko programa da, etxebizitza eskuratu ahal izateko diru baliabide urritasunarekin lotuta dago.

Programa hauetan parte hartu nahi duenak Nafarroan erroldatuta egon behar du, gutxienez 3.000 euroko diru-sarrerak eduki behar

ditu eta 90.000 € edo gutxiagoko balioa duten ondasunen edo esku-bideak eduki ahal dituzte.

EmanZiparen onuradunak 23-30 urte bitarteko gazteak dira. Dirulaguntzak telematikoki baino ezin izanen dira eskatu. Dirulaguntza hiru urtez (ez dute elkarren segidakoak izan behar) jaso ahal da.

Nafarroako Gobernuak web-gune bat prestatu du bi programetako zehaztasunak kontsultatu ahal izateko, hala nola eskariak tramitatzeko. Horretaz gain, bi helbide eskaini dituzte: emanzipa@navarra.es eta davidvivienda@navarra.es.



Izaga Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak deialdi berria egin du

2016ko azaroan Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak deialdi bat plazaratu zuen, entitatearen zerbitzura familia langile aritzeko (ordezkapenak egiten) hautagai zerrenda osatzeko. Ordezkapentarako langileei aldi baterako kontratazioa eginen litzaieke, mankomunitateari ordezkapenak egiteko beharra agertuz gero.

Orain arte, langileen oporraldiak betetzeko eta balizko lan bajak ordezkatzeko beharrak agertzen

zirenean, zerrenda hau osatzen duten pertsonekin erantzun ahal izan da.

Deialdi honen iraupena lau urtekoa bada ere, pasa den otsailean Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez egin behar izan zen este bat. Aurrekoaren osagarria da, eta lehenengoak duen balio bera dauka. Hamaika pertsona aurkeztu ziren deialdira, eta horietako bat lanean ari da, dagoeneko, ordezkapen bat egiten.



Ekipo berria, Agoitzaldeko haurrak eta nerabeei arreta emateko

Gizarte Eskubideetako departamentuak, Autonomia eta Garapen Nafar Agentziaren bidez, martxan jarri du Haur eta Nerabeei Arreta (EAIA) emateko ekipo berria. Zerbitzua emanen die Nafarroako iparraldeko (Agoitz barne) haur, nerabe eta familiei. Ekipo hau osatzearekin batera, Foru Komunitate osora zabaltzen da zerbitzua-aren kobertura.

Diziplina anitzeko ekipoa da, psikologia, gizarte lana, hezkuntza eta gizarteratze arloetako 12

profesionalak osatutakoa, eta laguntza emanen diete eskualdeko gizarte, hezkuntza eta osasun arloko profesionali.

Taldeak arreta emanen die 18 urtetik beherako nerabeei eta haurrei. Horretarako, beharrezkoa da, lehenik, balizko babes falta egoerak aztertzea eta baloratzea, hala nola babes falta sumatu den familiguneei buruz.

Horretaz gain, gizarte zerbitzuei, komunitateko eragileei, hezkuntza

eta osasun arloetako profesionali eskainiko diete laguntza. Haurrak babesteko lan sarea osatzea da egitasmoak duen beste helburuetako bat.

Zerbitzu honek gizarte arloari inbertsio handia suposatzen dio, baina ezinbestekoa egiten da, hauskorren eta babesik falta handien duten hurrekin lan egitean baitatza. Orain prebentzio arloan lan egiten bada, larritasun eta gatazka handiagoko egoerak galarriziko dira.



Agoizko Udalak gogorarazten du...

Debekaturik dagoela motordun ibilgailuekin ibiltzea landan zehar, errepideetatik kanpo, bi metro baino gutxiagoko zabalera duten landa bideetan, suebakieta edo egurrarentzako tira-bideetan.

Halaber, ezin izanen da ibili administrazioak espresuki debekatu dituen bide edo oihan-bideetan barna, bi metro baino gehiagoko zabalera eduki arren.

(36/1994 Foru Legeko 11. artikulua)



Ondasun komunalen babesa eta berreskurapena



Xinple! aldizkariko aurreko zenbaki batean aurreratu genuen zer lan egiten ari zen Agoizko Udala komunaleko lurak babesteko.

Ondasun komunalak herritar guztiek komunean disfrutatu ahal dituzten horiek dira. Haien helburua landa ekonomiaren osagarri izatea da (behartsuenen kasuan, bereziki) eta herrirentzako baliabide iturria dira. Guztienak dira, eta, aldi berean, inorena, eta bere osotasunean kontserbatu behar dira, datozen belaunaldiak uzteko.

6/1990 Foru Legeak honakoa dio: «Nafarroako Toki Entitateek zaindu, defendatu, berreskuratu eta hobetu behar dituzte ondasun komunalak»; besterenezin, preskribaezin eta bahigarriezintzat jotzen ditu, eta, horrenbestez, noiznahi berreskura eta susper daitezke.

Azken garaietan, gehienok landa giroko bizimodutik urrundu gara, eta, ondorioz, gero eta arrotzagoa zaigu landa ingurua. Gure arbasoek ez bezala, komunalaren gainean dugun eskubidearekiko kontzientzia galarazita dugu. Agoitzen, Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko herri gehienek bezala, pertsona gutxi batzuek, nekazaritza arloan lan egiten dutenek alegia, aprobetxatzen dituzte komunaleko lurak eta laboreenak. Landa-eremuetan gertatu den mekanizazioaren aldeko bilakaerak, nekazaritzarekin lotutako ohitura desegokiak eta gehiago edukitzeko nahiak kalte handiak eragin dituzte: gaizki egindako luberritzeak; bideak, ezponda, berro, zuhaitz gune txiki, iturri eta abar galtzea. Finean, nekazaritzako lurak lantzen dituztenak paisaia kontrolik gabe eraldatzen ari dira.

Natur elementu horiek desagertzearekin batera, ekologia, ondare eta kultura balio handiak galtzen dira. Galera horiek baloratzen zailak dira, baina argi dago

ezin direla lurraren preziora soilik mugatu. Oso kezagarria da ondasun hori desagertzea. Funtzio anitzak ditu: haizea mozteko baliagarriak dira, paisaia aberasten dute, lurraren higadura galarazten dute, ura atxikitzen dute, polinizazioa ahalmentzen dute eta korridore ekologikoak dira izurriteak galarazten dituzten harraparietzat (intsektuak, lur-saguak, saguak eta abar). Beste herrialde batzuetan baloratuta dago landa-eremuetako berroen balio ekologiko eta ekonomikoa. Zenbait ikerketek egiaztatzen dituzte landare pantailen eragin eremuak emankorrak direla.

Gaur egun, gure kultura biratu eta aisia-guneak bilatzen ari da naturan: paseatzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea, hegaztiak, tximeletak, landareak behatzea... biodibertsitate aniztasuna duten lekuetan egin nahi ditugun aktibitateak dira.

Agoizko Udalak bere lurraldeko azterketa zehatza egin du, eta, horren ondorioz, partikularrek lur komunaleko 6 hektarea (59980 m²) hartu eta haien lursailak atxiki dituztela ikusi da, haienak bailira, kontrolik gabe. Lur horien jabetza berreskuratzeko espedienteak ireki dira. Prozedura administratibo horri jarraikiz, lurak uzteko gonbitea luzatzen zaie. Nafarroako Gobernu Komunalen Atalarekin batera jasoketa topografikoa egin da eta lur-zatietako batzuk taketen bidez mugatu dira, gainera.

Zenbaitetan haiena ez izateagatik aprobetxatu behar ez zuten alorrean uztea lortu dugu; kasu horietan erabilera besterendu ahalko da beharrezko prozeduraren bidez. Beste kausi batzuetan, ordea, kendu dituzte mugak markatzen zituzten taketak eta baimenik gabe lantzen jarraitzen dute. Horien kasuan lanean jarraituko dugu osorik berreskuratu arte; hala ere, gure nahia da okupatuta itzultzea, horrela izan behar delakoan baikaude, pertsona guztien onurarako den ondasun komuna baten parte diren aldetik.

«Zenbat kostatuko zaie datozen belaunaldiak herentzian uzten ari gatzaitzkie ingurune eraso horien ondorioak zuzentzea? Apika, egun batez ohartuko gara gizarte, ondare, ingurune eta ekonomia eralgitze handia egiten ari garela eta gure natur ingurunea hobe kontserbatzera animatuko gara. Gero eta gehiago gara saiatzen ari garenak». (Manuel Cala, por la Nueva Cultura del Territorio).

Ondare eta Ingurune Arloa

Korrika 21-ak Agoitz igaroko du

Korrikaren lehen edizioa 1980.ean izan zen, eta Oñatitik atera eta Bilbora iritsi zen. Orduetik aurrera euskararen alde egiten den egintzarik handienetako bat izan da, bertan elkartzen dituen jende kopuruagatik, besteak beste. Heldu den apirilaren 4an hasiko da 21. Edizioa, 11 egunez, euskararen alde 2.000 kilometrotik gora egiten dituen, eta adin eta izaera mota guztietako jendearen partaidetza izanen du. Apirilaren 6an zeharkatuko du Agoitz, goizeko 11:30ak aldera.

Euskara bultzatzeko lasterketa honetan parte hartzeko aukera izateaz gain, heldu den martxoaren 24an Aiko taldearen ikuskizuna izanen da Agoitzen. 19:00etan izanen da, Kultur Etxean.

Horretaz gain, aurten, nobedade modura, Agoizko Udalen euskara arloaren laguntzarekin batera, aurreko Korrikaren edizioetako argazki lehiaketa bat antolatu da. Bertara aurkeztutakoak ikusgai egonen dira Angi-luerrean, martxoaren 30a arte, eta garaileak aukeratzeko bozketan parte hartu ahalko da.

Edizio bakoitzean egiten ari den moduan, Agoizko udalak kilometro bat erosiko du. Herriko guztiak gonbidatzen ditugu, udalarekin batera korrika egin dezaten.



Kulturgunea foroa elkartu da

Pasa den otsailaren 28an izan zen Kulturgunea foroko urteko lehen bilera. Elkarguneak pasa den urtean izan zuen funtzionamenduen dinamika baloratu zen, izandako bilkura egutegiari jarraikiz. Egutegia berretsi eta aurten ere bera izanen da.

Datozen hilabeteetarako aurreikusitako programazioa jakitera eman zen: San Migel abesbatzak 75. urteurrena ospatuko du, eta horren kariatara ekitaldi asko egingen dira Agoitzen eta Agoitzetik kanpo ere; Mariano Garcia Musika Bandak 20. urteurrena ospatuko du; Korrikak herria igaroko duenez, euskara ar-

loak zenbait ekitaldi antolatu ditu, eta Euskararen Eguna ospatuko da ere; eta udaleko kultur arloak, berriz, ohiko programazioa prestatuko du.

Azken arlo horri dagokionez, udala Nafarroako Antzerki sareko kidea den aldetik, arte eszenikoekin lotutako zenbait proiektu aurrikusita daude urte honetarako. Horretaz gain, programazioak atal hauek izanen ditu: arte plastikoak (artista ospetsuak eta herriko artisten sustapena uztartuz); irakurketaren sustapena (topaketak egileekin); zinea; ikastaroak eta lehiaketak, besteak beste. Kultur programazioaren apustua: kalitatea, anizta-

suna, eragingarritasuna, herrikoen parte hartzea (adin guztietakoak), bai hartzaile bezala, bai artista modura.

Bilkuran adierazi zen ere, Agoizko udalak sanisidrotan omenaldi bat eskaini nahi diela kultur taldeei, talde horiek gure herria dinamizatzen urtetan zehar izan duten inplikazioa saritzeko asmoz.

Horretaz gain, aurtengo hitzarmen eta dirulaguntzen proposamenak aztertuz iren; jaietako orkestrak baloratu ziren, baina propio egingen den beste bilkura batean xeheago ikusiko dira.



Kultur balantzea

Santa Agata bezperako ospakizunak ireki zuen otsaileko kultur programazioa. Urtero bezala, kantaldiak baseritarren modura jantzitako neska-mutil ugari elkartu zituen, makila eskuan, santuari eskainitako koplak behin eta berriro errepikatzen zituztenak, txistularien erritmora. Ibilbidea elizako kanpoaldeko hormaren hutsartean dagoen santuaren tailaren parean hasi zen, eta zenbait kaletan barna ibilita, Merkatuko plazan bukatu zen. Karrika Euskara Taldea kolektiboak argia eta kolorea eman zizkion ekitaldiari, bertan erabiltzeko propio eramandako faroltxoeekin.

Zangozako Kultur Etxeak «IntercambiArtez, Nafarroako paisaiak eta herriak» erakusketa kolektiboak jaso zuen, urtarrilean zehar Agoitzen egon ondoren. Erakusketa kultur trukaketa sustatzeko bi herrien arteko lankidetzaren ondorioa da, eta bi herrietako pintura tailerretan (Agoitzen Alodia Lusarretarekin eta Zangozan Alfonso Ascuncerekin) ikasleek egindako pinturak erakusten ditu.

Agoitzen otsailerako programatutako erakusketak Nafarroako hamalau argazkilari zaletu zein profesionalen lanak aurkeztu zituen. Erakusketa anitza izan zen, estilo desberdineko argazkiak bildu zituen: paisaietako zein prentsa argazkiak; estudioetan, gauze... egindakoak.

Dantzak ere lekua izan zuen. Gero Axular Dantza Taldeak "Agorrila" euskal dantzako ikuskizuna eskaini zuen, eta Dravet sindromea pairatzen dutenen aldeko elkartasuna adierazi zuten, leihatilan bildutako diru osoa Apoyodravet elkartera joan baitzen.

Irati antzerki taldeak berriz ere lortu zuen taldea ikusteko sarrerak agortzea, oraingoan «De uno en uno» bakarriketen komediako bi emanaldiekin.

Memoria historikoak lekua izan zuen programazioan. Fermín Ezkieta Yabenek aurkeztu zuen berak idatzitako «Los fugados del Fuerte de Ezkaba» liburua. Europako kartzela batetik inoiz eman den ihesik handienat hartzen dute Ezkabako gotorlekutik gertatutakoa. Hitzaldia oso interesgarria izan zen, eta han izandako gertakizunetara hurbilarazi gintuen: Ezkabako San Kristobal gotorlekuko ihesa 1938ko maiatzaren 22an izan zen; ihes egindako 206 pertsona inguruko mendietan fusilatu zituzten, eta 14 gehiago abuztuan zehar, antolatzaileak zirela egotzita.

